

opusdei.org

Emakumearen Nazioarteko Eguna

Erabaki-eremuetan
emakumeak duen presentziari
buruzko hausnarketak

2021 Mar 12

Zerk eragozten die emakumeei
zuzendaritza-postu horietara iristea?
Zer ezaugarri ditu emakumeen
lidergoak eta zer oztopo ditu bidean?
Erantzukizuneko karguak dituzten
emakumeek lana eta familia uztartu
ditzakete?

Charo Sádaba Komunikazio
Fakultateko dekanok eta Gloria
González Aseguinolaza CIMako
zuzendariordeak, emakumeen
lidergoari buruzko elkarrizketa
batean parte hartu dute. Halaber,
pandemiak kolpatutako gizarte baten
berreraikuntzan emakumeak izan
behar duen zereginaz hitz egiten
dute.

Hona hemen bere gogoetarik
aipagarrienetako batzuk:

Charo Sádaba

“Emakumeak jokatu behar duen
paperearen inguruan, pandemiak
argiak baina baita itzalak ere
erakutsi dizkigu. Krisi honetatik ikasi
beharreko ikasgai bat da". Emakume
baten lidergoa ikuspegi zabal batean
oinarritzen da, borondate gehiago
lortu nahi baititu. Erabakiak
adostuta badaude, emakumeek uste
dugu urrunago iristen garela”.

Gloria González Aseguinolaza

“Diskriminazio positiboko legeek ez dute kuotetan oinarritu behar; aitzitik, erantzukizuneko postuak betetzeko emakumeengan pentsatzen irakatsi behar dute. Enpresek ahalegina egin beharko lukete lanpostuetarako emakumeak identifikatzen saiatzeko eta, hautagaiak ebaluatu ondoren, onena aukeratzeko. Gizarteak femeninoan pentsatzen ikasi behar du.

Emakumeek funtsezko zeregina izan dute krisi honetan: nork zaintzen ditu gaixoak, adineko pertsonak? Gehienak emakumeak dira. Geure buruaz ahazteko eta laguntza behar duen pertsona hori aurrean jartzeko joera hori, bizi dugun krisian islatzen da”.

pdf | document generated
automatically from [https://
dev.opusdei.org/eu-es/article/
emakumearen-nazioarteko-eguna/](https://dev.opusdei.org/eu-es/article/emakumearen-nazioarteko-eguna/)
(2025 Abu 7)